

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko abenduaren 9a. VIII. urtea. 2.322. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Autopista elektrikoaren aurka azaldu dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat udal

Tolosan, Amasa-Villabonan, Albaltzisketan, Baliarrainen eta Leitzan beren lurretatik pasa nahi duten goi tentsioko linea baztertu dute

400 kv-ko linea Uitzitik barrena iritsiko litzateke Tolosaldeara; Baliarrainen esaterako, herri gunetik pasako litzateke **o 6-7**

### Amezketan 'Egin dezagun bidea' ekimenarekin bat egin dute

Herritarrek eta hainbat eragilek urtarrilaren 7ko euskal presoek eskubideen aldeko manifestaziora joateko deia egin dute; atxikimendu orriak utzi dituzte udaletxean **o 4**



## Banaka Romerok, eta binaka Artola-Lizardik irabazi dute Frontenis Txapelketa

Berrobiko Ion Ander Izagirre txapelketan 74 parte hartzaile izan dira aurtengoan; emakumezkoetan hala ere, partida bakarra izan da eta Lezea-Rodas izan dira garaile **o 2**



Binakako finalistak: Lizardi-Artola eta Lobato-Romero. HITZA

→ **'Elurrezko panpina' errepikatuko dute.** Bukatu da Titirijai jaialdia. Antolatzaileak oso gustura daude emaitzarekin, izan ere emanaldi askotan sarreak ere agortu zaizkie. Horietako ikuskizunetako bat izan zen *Elurrezko panpina*, eta hori dela eta Gabonetako egitarauaren barruan berri ere ikusi ahal izango da. **o 4**

## 'Olentzero eta Iratxoaren Jauntxoaren' musikala, Tolosan

Txikienek Mari Domingi, Mari Teiletako eta Iratxoarekin kondairak entzun ahal izango dituzte gaur, kultur etxean, 17:00etatik aurrera **o 3**



Merkataritzak  
bizia  
ematen du

**Tolosa&Co**

# Xabi Romero garaile Berrobiko Frontenis Txapelketan

Emakumeen sailean, binaka, Lezea-Rodas bikotea izan zen txapelduna, herenegun jokatu zuten finalean

**Itzea Urkizu** Berrobi

Azaroaren 27an hasi zen, Berrobiko Begi Gorri gazteteak antolatzen duen XX. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa, eta herenegun amaitu zen. Gizonezkoen mailan, banaka, Xabi Romero izan da txapelduna, eta binaka,

berri, Niko Artolak eta Iker Lizardik osatutako bikotea nagusitu zen. Emakumezkoetan, berriz, aurten txapelketako partidak osatzeko beharrezkoa den jende kopuruak izena eman ez duen arren, bi bikoteren arteko partida jokatu zuten pasa den abenduaren 7an, eta Mireia Lezea eta Aran Rodas izan ziren garaileak.

## 74 parte hartzaile

Antolatzaile lanetan aritzen den Ibai Madinak azaldu duenez, guztira 32 jokalarik eman zuten izena, banakako lehia sartzeko. Binaka aritzeko, berriz, 42 lagunek

eman zuten izena. Gizonezkoen mailan, banaka, Xabi Romero irabazlearen atzetik, honakoa izan zen frontenis txapelketako sailkapena: Eneko Goenaga bigarren suertatu zen, eta hirugarren eta laugarren postuak Unai Mendia eta Odei Arregirentzat izan ziren, hurrenez hurren.

Binakakoan, berriz, gizonezkoen sailean, Niko Artolak eta Iker Lizardik osatutako bikoteak irabazi zuen, eta atzetik, ondorengo bikoteak sailkatu ziren: Xabi Romero eta Edu Lobato bigarren, Iban Zabaleta eta Iban Aranburu hirugarren, eta Unai Mendia eta

Kepa Auzmendi laugarren. Aurten, Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa hogeigarrenez antolatu dute, eta nabarmentzekoa da emakumezkoen txapelketarik ezin izan dutela antolatu. Madina antolatzaileak azaldu duenez, «ez du behar bezain beste jende izena eman, eta ezin izan da txapelketa egin. Normalean, sei bikote inguruk ematen dute izena, baina aurtengoa ez da izan». Hala ere, herenegun finalean, emakumeen partida bat jokatu zuten, bi bikotek. Horrela beraz, emakumeen sailean, txapeldunak Mireia Lezea eta Aran Rodas izan ziren, eta bikote

txapeldunordea, berriz, Oihane Vergarak eta Leire Jauregik osatutakoa izan zen.

## Partiden ondoren, elkartera

Frontenis txapelketa amaitu zenean, ohitura duten bezala, mokatua jatera joan ziren parte hartzaile eta antolatzaileak, herriko elkartera.

Antolatzaileek, eskerrak eman nahi izan dizkiete, XX. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketan laguntzaile moduan aritu diren guztiei, eta baita parte hartzaile nahiz ikusle guztiei ere.

• [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

## Irudia Tolosa



## TXISTU DOINUA PLAZA ZAHARREAN

Sortzez Garbiaren eguneko kontzertu berezia eskaini zuten atzo eguerdian, udaltxetako arkupeetan, Udaltxistulari bandako kideek. Guztira zortzi pieza eskaini zituzten. *Rataplan* biribilketarekin hasi zuten emanaldia. Jarraian, Ansorenaren *Betnigan gertu* izeneko zortzikoa jo zuen txistulari bandak. Migel Gonzalez egilearen *Martxa Heraldikoak* piezarekin jarraitu zuten, eta lehen zatia

Ansorenak moldatutako *Goizuetarekin* amaitu zuten. *Iradi* izeneko arin arin batekin hasi zuten kontzertuaren bigarren zatia. Jarraian, Gontzal Mendibilen *Bagare Bagara* ezaguna eskaini zuten txistulariek, eta Mikel Laboaren *Txorria txoriere* interpretatu zuten. Sortzez Garbiaren eguneko kontzertu berezia, azkenik, Xabier Leteren *Habenera* doinuarekin amaitu zen. [ITZEA.URKIZU](mailto:ITZEA.URKIZU)

## 'Eva' eta 'Criadas y señoras' ikusteko aukera izango da

Gazteteen, 'Tintin' filma ikusteko aukera izango dute asteburu honetan, Tolosako Leidor aretoan

**I. Urkizu** Tolosa

Asteburu honetan ere, helduei nahiz haur eta gazteei zuzenduriko pelikula eskainiko dituzte Tolosako Leidor aretoan.

Gaur gauean, 22:30ean, *Eva* filma izango da ikusgai. Larunbatean, berriz eskainiko dute *Eva*; kasu honetan iluntzean izango da, 19:30ean. 22:30ean, berriz, *Criadas y señoras* filma proiektatuko dute Leidor aretoan.

Igandean, hiru saio izango dira. 17:00etan eta 19:30ean, *Tintin y el secreto del unicornio* pelikula izango da ikusgai, gazteteoentzat. Gaueko 22:00etan, berriz, *Eva* eskainiko dute.

Astelehenean, hilak 12, ikuslearen eguna izango da. *Criadas y señoras* pelikula eskainiko dute, ohi bezala, 20:30ean.

## ↓ Asteburuko kirola

### GAUR

■ **19:00.** Esku pilota. Alegiako frontoian, Gipuzkoako infantil mailako banakako partidak izango dira.

### LARUNBATA

■ **09:00.** Saskibaloia, emakumezkoen infantil maila: Take Montesku-Orio. Usabalgo goiko kantxan.

■ **09:00.** Futbola, emakumezkoen infantil maila: Usabalgo Tolosa-Urnieta.

■ **10:30.** Saskibaloia, gizonezkoen kadete maila: Triki Take-Hernani. Usabalgo goiko kantxan.

■ **10:30.** Futbola, gizonezkoen kadete maila: Tolosa-Euskalduna. Usabalen.

■ **12:00.** Saskibaloia, gizonezkoen kadete maila: T. Tovar-Saskiular. Juniorrak: Take-Aloñamendi. Usabalgo goiko kantxan.

■ **12:00.** Futbola, gizonezkoen ohorezko kadete maila: Tolosa-Euskalduna. Usabalen.

■ **13:30.** Futbola, gizonezkoen infantil maila: Tolosa-Diazabal. Usabalen.

■ **15:30.** Futbola, emakumezkoen kadete maila: Tolosa-Euskalduna. Usabalen.

■ **16:00.** Eskubaloia, gizonezkoen kadete maila: Tolosa-Karibe Zaharra. Usabalgo goiko kantxan.

■ **16:30.** Futbola, gizonezkoen nazional mailako jubenilak: Tolosa-Santutxu. Berazubín.

■ **17:30.** Futbola, emakumezkoen jubenil maila: Tolosa-Oiarztzun. Usabalen.

■ **18:00.** Aretu futbola, gizonezkoen Nazional maila: Ibarra-Soloarte. Usabalgo goiko kantxan.

### IGANDEA

■ **12:00.** Saskibaloia, gizonezkoak, juniorrak: Take-Hernani. Usabalgo goiko kantxan.

## USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:

Urteko Oñiko Batzar Orokorrera dei egiten dizut, Euskal Herria plazako TOPICen burutuko dugunera. Batzar hau abenduaren 14an, asteazkena, izango da arratsaldeko 19:00etan hirugarren deialdian. (Lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:

- 1.-Aurreko urteko aktaren berri jaso.
- 2.-Partaide berriak Juntan eta Gurasoen lan-batzordeak
- 3.-Balanztza eta Aurrekontua.
- 4.-Eraikuntza berriaren bukaera
- 5.-Kuotak eta finantzazio iturriak
- 6.-Kilometroak 2013
- 7.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
- 8.-Elkartasun Kutxa Europar Kooperatiba
- 9.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
- 8.-Galdera eta eskeak

Tolosan, 2011ko abenduaren 11ean  
Batzordeko Lehendakaria



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Larramendiko lurperatzearen inguruko bilerak antolatu dituzte

Bizilagun talde batek astelehenean egingo du bilkura, eta udalak asteartean aurkeztuko du bigarren aukera

**Rebeka Calvo** Tolosa

Voith-Gorostidi guneko lurperatzearen inguruko bi bilera egingo dira datorren astean. Astelehenerako bizilagun talde batek egin du deia, eta bertan «lurperatzearen inguruko informazioa partekatuko» dutela azaldu dute. Bilerarako deia «Voith-Gorostidi proiektuaren Amenabar eta Oraune sustatzaileei etxeak erosi dieten pertsona guztiei» egin die, eta 20:30ean bilduko dira Tolosako kultur etxeko areto nagusian.

Udalak bere aldetik, asteartean egingo du batzarra. Bilkuraren helburua Larramendi kaleko urbanizazio bigarren aukera aurkeztea da eta hilaren 13an eman dute honen berri, 20:00etan, Topic zentroan. Udal gobernuak esandakoaren arabera, asteartean udalako ordezkariek eta aukera hau osatzen lagundu duten arkitekto eta teknikariak izango dira bizilagunen eta gerturatzen direnen zalantzak argitu asmoz.



### Gutuna

#### Txelo Romeo eta Itziar Jauregi erantzunez.

Txelo Romeo eta Itziar Jauregiaren esker oneko hitzei erantzuteko asmotan, hona hemen Gizar Zerbitzuetako batzordeak 2011ko martxoaren 17an egin zuen bileran hartutako erabakia: eraikin dotazionalan Egu-neko Zentroan hartu behar zuen lokala oraingoz hutsik uztea, definizio berrien zain.

Horrelaxe erabaki zuten jakin zutenean zer arrazoi eman zituen Foru Aldundiak —berak du eskumena alor honetan— Egu-neko Zentroaren finantziazioa bere aurreikuspenetan ez sartzeko.

Batzorde horretan ez zen izan Itziar Jauregi eta litekeena da erabaki horren jakitun ez izatea, baina Txelo Romeo buru zen bilera horretan, eta orain zer esango-eta prentsaren bidez jakin dutela berak zuzen-zuzenean hartutako erabaki baten

berri. Edo amnesia puntu batek jota dago edo, okerragoa dena, ez du inolako lotsarik.

Kontu gutxiago bota eta esan dezala zergatik ez zioten jendeari erabaki horren berri eman orduan (ez dezagun ahaztu udal hauteskundeak gainean zirela).

Argitu dezala bere kudeaketa ezin kaskarragoa izan dela, esan dezala zergatik ez zuen inolako eskabide formalik biderratu Foru Aldundira, edo argitu dezala zergatik ez zuen sinatu inolako aurreakordiorik...

Ibarran oraingoz ez da Egu-neko Zentrorik izango, aurreko korporazioak, alkateak batik bat, etxeko lanak behar bezala egin ez zituelako.

Gainerako guztia alferrikako erretorika eta ele-melea da, bazterrak nahasteko eta beren eginkizunetan izandako utzikeria estaltzeko.

■ **Jesus Peñagarikano Labaka.** Ibarra alkatea.

## Iritsi da 'Olentzero eta Iratxoen Jauntxo' filmaren musikala

Emanaldia gaur izango da Tolosako kultur etxean 17:00etatik aurrera; sarrera doan izango da

**Rebeka Calvo** Tolosa

Olentzero pertsonaiak abenturak bizitzen jarraitzen du. 2002tik hona hiru filmetan ikusi ahal izan dira bere gora-beherak; *Anje, Gabonetako ipuina* (2002), *Olentzero eta subil magikoa* (2005) eta *Olentzero eta oparien ordua* (2008). Ia lau urte pasatu dira, baina azkenean iritsi da laugarren filma ere: *Olentzero eta Iratxoen Jauntxo*. Pelikula pasa den hilaren 2an estreinatuta zuten, baina gaur bertan, Tolosan, Olentzeroren abentura berriaren inguruko musikala ere izango da. 17:00etatik aurrera izango dute hitzordua txikienek kultur etxean, eta bertan kantatzeko eta dantzatzeko aukera izango dute proiektuko kide den Haizea Hormaetxeak azaldu duenez. «30 bat minutuko ikuskizuna da eta bertan, haurrek ipuinak ere entzungo dituzte», esan du. Izan ere, taula ginean Mari Domingi, Mari Teiletako eta Iratxo izango dira, eta ipuinak kontatuko dizkiete bertaratutakoiei. Era berean, kantak eta kore-

ografiak izango dira: «Euskal Herriko mitologia ezagutu ahal izango dute, dantza egin...».

#### Filmaren nondik-norakoak

Aipatu bezala, gaurko ikuskizuna *Olentzero eta Iratxoen Jauntxo* filmaren aurkezpena izango da, eta hain justu HITZAren harpidedunen txokoa, 20 sarrera pare zozketatu ditugu filma eskainiko duten edozein toki edo ordutegietan erabili ahal izateko.

Filmean aurrekoetan horrenbeste landu ez duten elementu berria garatu dutela diote Baleu-

koekoizpen etxeko arduradunek: euskal kondairak eta usadioak. Orain arteko abenturatan Olentzerok gizakien diru goseari eta berekoikeriari egin behar izan zion aurre, baina oraingoan beste mitologiako pertsonaiak izango ditu aurrez aurre.

Pertsonaia berria, Iratxo, gaiztoetan gaiztoena da, eta Olentzerorekin batera hainbat istorio eta abentura biziko ditu, haurrei esfortzuaren, erantzukizunaren, adiskidetasunaren eta itxaropenaren inguruan hausnartzeko aukera zabalduz.



*Olentzero eta Iratxoen Jauntxo* filmeko irudi bat. HITZA

## → Laburrak

### Pedagogi tailerraren saioa, astelehenean

**TOLOSA** › Samaniego ikastetxeak antolatutako *Erantzukizuna sustatuz seme-alabengana* izeneko pedagogi tailerraren hirugarren saioa izango da astelehenean, hilak 12. Haur Hezkuntzako eraikinean 17:30etik aurrera Ana Eloseggi Uranga psikologo sistemikoak eskainiko du hitzaldia.

### Euskal presoekin etxeratzea eskatzeko elkarretarata

**TOLOSA** › LABek euskal preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko elkarretarata egingo du astelehenean, hilak 12. Trianguloan 12:00etan. Sindikatuk azaldukoaren arabera, «euskal preso politikoen kontra erabiltzen den espetxe politika tristeki ezaguna da: 20 urte baino gehiago irauten duen sakabanaketa, isolamendua, etengabeko xantaia, *de facto* aplikatzen zaien bizi osorako zigorrak...». Hau salatzea atzerako da kalera, astelehenean.

### Elkartasun Azokarako material bilketa

**BERASTEGI** › Urtero bezala J. A. Muñagorri eskolako Ingurumen batzordeak Elkartasun Azoka antolatu du bigarren eskuko materiala bilduz. Jasotzen duten dirua Etiopiako Wukro herrira bidaliko dute, eta azoka hilaren 16, 17 eta 18an izango da. Materiala, dena den, hilaren 12tik 15era bilduko dute, 16:30etik 18:30era, aparkaleku azpiko lokalean. Azokaren helburua soberan edo erabiltzen ez ditugun gauzei etekina atera eta erabilpen berria ematea da.



HITZAK harpidedunentzat 20 sarrera pare ditu

### Olentzero eta Iratxoen Jauntxo filma

Sarrerak, filma eskainiko den edozein toki eta ordutegietan erabili ahal izango dira

TXOKO hitza®

Sarrerak jasotzeko astelehenetik aurrera Tolosako HITZAren egoitzatik pasa

## saridunak

- Alazne Dorronsoro (Bidegoian)
- Amaia Balerdi (Tolosa)
- Ana Goñi (Areso)
- Asier Castro (Ibarra)
- Begoña Altuna (Lizartza)
- Bittori Tolosa (Tolosa)
- Garbiñe Ruiz de Egulaz (Tolosa)
- Izaskun Goikoetxea (Alegia)
- Jose Ramon Zubeldia (Baliarrain)
- Karmele Arsuaga (Orendain)



## sarrerak

- Malentxo Arrospide (Lizartza)
- Maria Jesus Aranazabe (Tolosa)
- Maria Ondarretxe (Berrobi)
- Maritxu Bernabe (Txarama)
- Marta Agirrezabala (Altzo)
- Mikel Izagirre (Tolosa)
- Monse Huegun (Villabona)
- Nati Murua (Alegia)
- Onintza Lizarra (Ikaztegieta)
- Sagrario Sorondo (Irura)

# Publikoaren erantzunarekin, «beteta»

Titirijaiko ikuskizun askotan txartelik gabe gelditu dira, eta erantzunarekin gustura daude antolatzaileak

**Eneritz Maiz** Tolosa

Bukatu da Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. Beste urte batez, «arrakastatsua» izan da. «Jatorri, mota eta garai ezberdinetakoak ikusteko aukera eskaini dugu, eta orokorrean egiten dugun balorazioa positiboa da», azpimarratu du Idoia Otaegik zuzendaritzako kideak.

Azaroaren 26ean hasi, eta abenduaren 4ean amaitu zen 29. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. 21 konpainiak parte hartu dute, eta 84 saio izan dira. Krisia dela eta, inoiz baino gutxiago izan dira. Hala ere, «ikuskizunak, ezberdinek eta kalitate handikoak izan



Suitzar txotxongiloen erakusketan egin dituzten bisita gidatuetakoa bat. HITZA

dira», gaineratu du. Saio askotan sarrera guztiak agortu zaizkie, eta honek, «alde batetik, gurasoak seme-alabekin datozenean pena ematen dizu sarrerarik gabe geratu direla ikusteak, baina beste aldetik, poztasun handia senti-

tzen duzu, zeren helburua hori da, aretoak betetzea», dio Otaegik.

Ikuskizun guztiak ez dira bete, baina orokorrean ia guztiak bete dira, eta «oso pozik» daude lortu duten emaitzarekin. Eta «ikuski-

zuetatik jendea oso pozik aterala uste dugu», azaldu du. Sarre-rarik gabe jende asko geratu zela eta, *Elurrezko panpina* ikuskizuna errepikatzea erabaki dute antolatzaileek. «Jende asko ikusi ezinik geratu zen, eta Gaboneta-

ko egitarauan sartuko dugu ikusi ez zutenek aukera berri bat izan dezaten».

Aurten Suitzara ireki dute leihoa, eta Suitza eta inguruko herrialdeak izan dira gonbidatu nagusiak. Suitzarren inguruan galdetzean, hauxe kontatu du: «Nahiz eta herrialde berekoak izan asko ez ziren elkarren artean ezagutzen, eta batik bat, berain artean ezagutzeko aukera izan dutelako, poz-ozik joan dira». Txotxongiloek Suitzan izan duten bilakaera ikusteko aukera izan da erakusketan.

Otaegik eskerrak eman ditu, «Tolosako publiko fidelari, baina baita ere, Gipuzkoa osotik etortzen den jendeari. Eta, nola ez, Tolosako herriari txotxongiloak hain ongi hartzeagatik», dio. Krisi egoera honetan, publikoaren erantzuna ikusita eta helburuak beteta dituztela ikusita, hurrengo urtera begira jartzeko indarrak hartu dituzte.

## Atxikimenduak bildu dituzte

Eragile eta herritarrek urtarrilaren 7ko Bilboko mafisteziara joateko atxikimenduak sinatu dituzte

**E. Maiz** Amezketeta

Urtarrilaren 7an, Bilbon egingo den presoen aldeko manifestazioari babesa emateko, abenduaren 3an, larunbatean, herritarrek eta hainbat eragile Amezketako plazan elkartu ziren.

*Egin dezagun bidea* ekitaldiari hasiera emateko, aldarriak irakurri zituzten, eta ondoren atxikimendua eman zuten hauek guztiek: Gazte Taldea, Ospela Gazte Lokala, Zumadi Eskolako Guraso Elkarteak, Emakume Taldea, Ira-

kurketa Taldea, Pelota Eskola, Bertso Taldea, EHNE, Aralar Papelerako LAB, Aralar Papelerako ELA, Bildu, Amezketeta Elkar Lanean, Zazpi Itturi Elkarteak, Ugarteko Elkarteak, Aralar Elkarteak eta Buruntzuzin Mendi Elkarteak.

Lehenik, taldekako atxikimenduak sinatu zituzten eta agertutako guztiek argazkia atera zuten. Azkenik, eta bukatzeko, banakako atxikimenduak sinatu ziren. Antolatzaileek agertutako herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Era berean emandako atxikimenduak duen garrantziaz jabetzea ere eskertu nahi diete. Bestalde, abenduaren 3an agertu ezin izan zuten guztientzat, udaletxean banakako atxikimenduak emateko orriak egongo direla gogorarazi dute.

• [alegialdea@hitza.info](mailto:alegialdea@hitza.info)



Eragile eta norbanakoak elkartu ziren babesa adierazteko. HITZA

## Haendelen 'Alleluia' kantatzeko deia Txintxarriko abeslari ohiei

Eguberrietako emanaldia hilaren 17an izango da, eta entseguak hilaren 13an eta 16an egingo dituzte

**Nerea Pikabea** Alegia

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak Eguberrietako emanaldiaren prestakizunetan murgilduta daude. Datoren hilaren 17an, arratsaldean egingo dute aurtengo Gabonetako kontzertua, ohi baino astebete lehenago izango da.

Emanaldiaren amaieran, eta urteroko ohiturari jarraituz, Haendelen *Alleluia* kantatuko du Txintxarri abesbatzak. Aurten ere, musikagile alemaniarren obra handi hori eskainiko dute. Obra hori abesteko, ordea, Txintxarri abesbatzan kantari ibilitakoak elkartu nahi dituzte egun horretan. Horretarako, abesbatzak entseguak antolatu ditu. Obra errepasatu eta prestatzeko entseguak hilaren 13an eta 16an izango dira 21:00etan Alegiako elizan bertan.

Txintxarri abesbatzak kantari ohi guztiei dei egiten die, *Alleluia* prestatzeko entsegetara etor daitezen.

• [alegialdea@hitza.info](mailto:alegialdea@hitza.info)

### PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)



**Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean III →**

Joxemi Saizar Tolosa

**L**aster kaleratuko den *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburuan, udalen bilakaera da jorratutako gaietako bat. 1939tik 1981era aldaketa handiak izan ziren Euskal Herriko udaletan, eta gure eskualdean ere bai, noski.

Frankismo gogor eta ilunetik abiatu eta, herri ekimenaren presioaz, erregimena ahultzen joan zen neurrian, gure erakundeak ere irekitzen joan ziren eta Franco hil zenean udal gestorak sortu eta lehen udal hauteskundeak iritsi ziren.

**Francoren presentzia**

Udalen bilakaera izugarria izan zen tratatzen ari garen garaian. Gerra ondorengo udalak frankismoaren ikurrak ziren, alkatea mugimenduko buruzagia zen, gobernadore zibila zuzenean behatzez izendatua eta zinegotziak aukeratzeko ez zen hauteskunderik egiten, denak erregimenekoak ziren. Eskualdeko herri handienetako alkateen zerrenda argitaratuko da liburu honetan, 1939tik 1981era, eta hor ikus daitezke aldaketak.

Francisco Franco diktadorearen presentzia gerra ondorengo lehen urteetan eta hamarkadetan handia zen herriko ekitaldi guztietan. Donostiara uda pasatzeko egiten zituen bisita ugarietan eskualdetik pasatzen zen, herri osoa horretarako prestatuz: apaindurak kalean, udalaren harriak, jende guztia kalera ongietorria ematera... Baina erregimenearen kontrako zeudenek beste modu batera bizitzen zituzten *Caudillo*aren bisitak: kartzelan sartu eta han mantentzen zituzten egonaldia iraun bitartean. Juan Asensio sozialistak eta Mirentxu Etxeberria Tolosako alkate izan zenak bere gurasoen kasuak aipatzen dituzte esandakoaren bi adibide gisa.

Hiru aldiz izan zen Franco Tolosan: 1941ean, SAM enpresa eta Elozegi txapel fabrika bisitatzen; 1948an, nekazal lehiaketa probintzian; eta 1951ean, Nafarroa etorbideko anbulatorioaren inau-



San Joan eguneko aurrekoa 1940ko hamarkadan: Wenceslao Maiora eta Juan Jose Garmendia apaizak, Maximo Telleria (alkatea jardunean), Mena, Joaquin Llanos, Vicente Gonzalez eta Domentxe zinegotziak. UDAL ARTXIBOIA

1939tik 1981era aldaketa handiak eman ziren Euskal Herriko udaletan. Bilakaera hori ere jorratu dute 'Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean' liburuan.

# Udala frankismoan eta trantsizioan

gurazioan. Hiruetan udalak harri eta ohoreak egin zizkion. Donostiarako bidean edo oportunitatik bueltan pasatzen zenean ere gertaera garrantzitsua izaten zen. San Joan jaietako egitarauetan ere bere argazkia eta «garaiaren» zenbatgarren urtea zen ikus daitezke. Herriko jaietako apainduran bandera espainolen presentzia nabarmena zen. 1936ko gerran Francoren aldeko hildakoek bere oroitarria izan zuten herriko lekuri garrantzitsuenean, Trianguloan, udalak hala erabakita eta 1941ean inauguratuta. Francisco Franco eta Jose Antonioren liburu guztiak

erostea erabaki zuen udalak 1943an egindako udalbatzarrean.

**Aldaketen hasiera**

Baina 1960ko hamarkadan giro sozio-politikoak aldatzen joan zen eta udaletxean ere pixkanaka aldaketa hori nabarmendu zen. Jose Mari Gorrotategirik zinegotzia izan zenean udal ikastola eta txistuak sortu zituela 1967an eta foruen aldeko mozioa aurkeztu zutela aipatzen ditu liburuan. Jesus Mari Azurzak bera zinegotzi sartzeko lehen hauteskundeak (eta azkenak) egin zirela eta Enrique Ortiz de Zarate alkatearen nolabaiteko oposizioa zire-

la adierazten du. Mugimendua berruaren zegoen Frente de Juventudes erakundeari diru laguntza nola kendu zioten ere kontatzen du liburuan egindako elkarrizketan. Eta Burgosko Prozesuan epaitutakoentzat Tolosako Udalak indultua eskatu zuela ez dugu ahaztu behar.

Hurrengo hamarkadan frankismoaren bukaera inguratzen dela nabari dute udaletxean. Jaietako apainduran eta egitarauetan bandera espainolak desagertu egin ziren. Hildakoen oroitarria bonba batek jota zuen 1972an. Guardia Zibilaren ekin-tza 1976ko Eguberri bezperan,

Olentzeroren kontra erasoz, kondanatu zuen udalak. Hamarkada honen erdialdean dimisio ugari izan ziren udaletxean, bai alkate eta bai zinegotzien aldetik. ETArekin mehatxuak ere kontuan hartu behar dira, noski. Udal frankisten hondarrean, ikurrinaren legalizazioa etorri zen eta Tolosako Udalak ere jarri zuen, 1977an. Bergarako alkateen mugimenduan, Bergarako Jose Luis Elkorok eta Zarauzko Imanol Muruak bideratuta, ez zuen parte zuzena hartu Tolosakoak, baina nolabaiteko harremana izan zuen.

**Udal Gestora**

Hurrengo pausoa Udal Gestora da. 1978ko martxoan sartu zen udaletxean, 1977ko hauteskunde orokorretan lortutako emaitzen arabera zinegotzi banaketa eginez: EAJk 5, PSOEk 2, EEK 2, ESBk 1, ORTk 1, DCVk 1 eta PCEk beste bat. 1979ko apirillean lehen udal hauteskundeak izan ziren eta horrela osatu zen lehen udala: EAJk 8 zinegotzi, HBk 5, EEK 2, PSOEk 1 eta EKAK 1. Alkatea Iñaki Linazasoro izan zen, Udal Gestoran bezala. Aldaketa nabarmena da. Lehen udalbatzarretako aktak ikusi besterik ez dago tratatutako gaiak oso desberdinak zirela konturatzeko: Lemoizko zentral nuklearra, presoak, estradi-zioak, amnistia, Estatutua, Nafarroa Euskadin sartzea, kale izendegi berria, euskara erabiltzea...

Lehen udal horretako ordezkari dezente elkarrizketatu ditugu libururako, eta batzuen elkarrizketa modu zabalean aterako da: Mirentxu Etxeberria, Martin Agirrezabala, Pepi Gorostidi eta Bixori Salinas. Orokorrean, garai polita bezala definitzen dute: dena egiteko zegoen, dirurik eta jende prestaturik ez zegoen eta lan handiak egin behar izan zituzten, adibidez hirigintzan gaizki egindako gauza batzuk konponetzea. Elkarren arteko lana eta giroa azpimarratu dute, nahiz eta askotan oposizioa elkartuta gobernuan zegoen EAJri irabazi gaien bozketetan.

Gai honi buruzko xehetasun gehiago izango dira laster argia ikusiko duen liburuan.

**GONBIDATUTA ZAUDE**
**Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean**

liburuaren aurkezpena.

**Abenduaren 14an, asteazkena, 19:00etan Tolosako zerkausian**

Aurkezpenaren amaieran, nahi duenak liburua eskuratu ahal izango du.

Eserlekuak eta berogailua izango dira. Ondoren, lunch-a eskainiko da.



# Tolosaldeko eta Leitzaldeko udalek ez dute autopista elektrikorik nahi

400 kv-ko goi tentsioko linea Uitzitik barrena, Tolosaldeara iritsiko litzateke, Ezkio Itsason amaitzeko

Baliarraindik 280 metrotara pasako litzateke autopista elektrikoa

## Asier Imaz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko udalak autopista elektrikoaren edo goi tentsioko linearen aurka agertzen ari dira. Banaka-banaka, udal bilkuretan, azpiegitura erraldoiaren aurkako mozioak aurkeztu eta onartu dituzte. Zerranda horretan, besteak beste, Tolosa, Amasa-Villabona, Abaltzisketa, Baliarrain eta Leitzaldea aurkitzen dira.

Mozioak desadostasuna azaltzen du proiektuarekiko, baita Red Elctrica de España SA enpresa bultzatzaileak aurkeztu dituen dokumentuekiko ere, «interes orokorreko justifikaziorik ez duela» argudiatuz.

REEk aurkeztu duen proiektuak, alde batetik, Deikaztelu eta Ezkio-Itsaso elkartu nahi ditu 400 kv-ko goi tentsioko linea batekin. Bestetik, Deikaztelu eta Castejon elkartuko litzuzke. Autopista elektriko honek eskualdean herri kaltetu ugari sortuko litzuzke. Leitzaldea Tolosaldeara iritsiko litzateke,

hemendik Goierriara joateko. Baliarrain adibidez, lineatik 280 metrora geldituko litzateke, eta Ugarte auzoa 500era; Aralar parke naturala ere inguratutik geldituko litzateke.

## Bigarren saiakera

REE enpresak goi tentsioko linea eraikitzeko lehen saiakera 2010ean egin zuen, Nafarroako Gobernuaren oniritziarekin. Orduan, ordea, azpiegituraren aurka sortutako herri mugimendua, herri kaltetuak eta Arabako Foru Aldundia aurka agertu ziren. Autopista elektrikoa Lizarraldeko herrietara argi indarra eramateko omen zen, enpresaren esanetan.

Bigarren saiakera 2011ko abuztuaren jarri zuen martxan REEK. Lizarraldeko herriei argi indarra emateaz gain, Nafarroako parke eolikoetako energia garraiatzeko behar omen da goi tentsioko linea. Hori, eta «Abiadura Handiko Trenaren iritsiera ezinezkoa izango litzatekeelako azpiegitura hau gabe», REEren hitzetan.



A. IMAZ

Martzelino Dorronsoro | Baliarraingo alkatea

## «Ezin sinetsirik gabiltza, eta gainera, ez dugu sinetsiko»

### A. Imaz Baliarrain

REEren aurreproiektuaren arabera, autopista elektrikoa Baliarraindik pasako litzateke. Martzelino Dorronsoro (Baliarrain, 1954) alkateak azpiegitura erraldoiaren inguruko lehen albisteak abuztuaren jarri zuen. Argazkian, proiektuarekin kaltea izan daitekeen baserria atzean duela agertzen da alkatea.

### Albistearen berri izan zenuenean, nolako sentsazioekin gelditu zinen?

Sentsazioa izugarria izan zen. Gauzak hain larriak direnean, nire ustez, herri bakoitzera pertsonalki joan beharko lukete azalpenak ematera; zer doazen egitera, zergatik eta zein asmorekin. Hain herri txikia izanda, udaltxeari erabateko dedikazioa ezin diogu eskaini, eta askotan pasa egiten dira paperean bidalitako gauzak. Abuztuaren gainera...

Ezuste harrapatu gintuen; ez genuen sinesten egun, horrelako astakeriak egin zitezkeenik.

### Abuztuaren jasotako idatzian, goi tentsioko linea nondik pasako zen zehaztenal zuten?

Baliarrain ingurutik pasako zela besterik ez zuten esaten. Gero, mapak bidali zituzten, eta orduan ikusi genuen.

### Zer ikusten zen mapetan?

Herri gunetik pasatzen zela, eta hori oso larria da. Gero, aisialdi gune bat ere badugu, oso ondo jarrita daukaguna, eta haren erdi-erdetik pasatzen da. Ezin sinetsirik gabiltza, eta gainera, ez dugu sinetsiko hemendik pasako denik.

### Hala eta guztiz ere, oraindik aurreproiektua besterik ez da.

Bai, eta beste lekuetan atzera bota baldin badute, guk ere indar hori egin beharko dugu atzera botatzeko. Gaurko egunean ezinezkoa da


horrelako astakeria bat egitea; alde batetik, inguru giroan izango duen eragina esaten da, eta bestetik, osasunarentzat ere oso kaltegarria dela. Izugarria da; oraintxe aritu gara herri inguruko gauza lur aspiratzen, eta bat-batean, egundoko istorioarekin etortzen zaizkigu. Harrigarria da.

### Zehatz-mehatz, aurreproiektuaren arabera, nondik pasatuko litzateke Baliarrainen autopista elektrikoa?

Herriaren hegoaldeetik, herri gunetik distantzia gutxira. Legeak esaten duen distantzia hori ez luke beteko orain egin den urbanizazio berriak, ezta inguruko baserri batek ere.

### Orain zer egitea tokatzen zaizue?

Bilerak egiten dira batean eta bestean, eta kaltetuak diren herriak hildaren 17an Iruñean elkartuko dira. Guk ere hor egon beharko dugu, proiektu honen aurka ahal dugun guztia egiten.



Leitzaldetik barrena, goi tentsioko lineak Tolosaldea zeharkatuko luke. HITZA

**CITROËN C4 BERRIA**  
POSITIVE POWER



Jarrai gaitzazu: 

PLAN REMOVE + CITROËN  
HILABETE HONETAN  
JASO ITZAZU

**3.000 €**  
ZURE IBILGAILU ZAHARRARENGATIK.\*



**CITROËN**  
GRUPU TEKNOLOGIKO

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIGUNEAN Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

## Aitor Etxarri ◉ Leitzako Udaleko zinegotzia

Herriko pestak prestatzen ari zirela jaso zuten, Leitzako udaletxean, goi tentsioko linearen inguruko lehen albistea.

# «Udalak bere lana bukatzean, eragile eta herritarren txanda izango da»

**A. Imaz** Leitza

Autopista elektrikoaren gaia, aurreko legealditik ezagutzen zuen Aitor Etxarri (Leitza, 1978) zinegotzi eta Plazaola partzuergo turistikoko lehendakariak. Lehen saiakera izan zen hura, eta orduan, Red Electrica de España aurreproiektua atzera bota zuen. Bigarren aurre proiektu honekin gauza bera gertatzea gustatuko litzaiotke Bilduko zinegotziari. Argazkian, Erasote auzoan dago Etxarri, eta atzeko parajetik pasako litzateke goi tentsioko linea.

**Autopista elektrikoaren inguruko albistea noiz jaso zenuten lehenaldiz?** Leitzako Udalarari etorri zitzaion abuztuaren lehenbiziko astean. Gainera, justu, pestetan sartzeraz gindoa zen, eta erregistro orritxo iritsi zen bat-batean, autopista elektrikoaren gai honekin.

**Eta zuek jaiak antolatzen?**

Gu pestak prestatzen, eta mundu guztia jaiekin; ez genekien nondik hasi. Idazkariarentzat ere gai berria zen, eta dokumentazio asko denbora gutxian aztertze; alegazioak jartzeko hilabeteko epea eman ziguten, abuztuaren bertan bukatzen zen epea. Ez geneukan denborarik deusetarako.

**Zer egitea erabaki zenuten orduan?**

Bagenekien aurreko legealdian goi tentsioko linea Lizarraldetik pasatu nahian ibili zirela, eta jendea horren aurka mugitu zela. Orduan, lehendabiziko gauza Deikatzeluko alkatesarekin harre-

manetan jartzea izan zen. Bere bitartez, Lurra taldeko tekniko batekin jarri ginen kontaktuan. Bera aritu zen Lizarraldeko herriei laguntzen, eta orduan herri bakoitzak egin zituen alegazioak bazituenez, gurera egokitu genituen alegazio horiek. Hori izandu zen egindako lehen alegazioa.

**Lehen dokumentu hark zer zioen?**

Torre batzuko jartzeko asmoa zutela, 400 kv-ko linea bat pasatzeko. Castejonon sortzen zen energia Ezkio Itsasoko transformadorera eramateko omen zen. Mapa bat ere ekartzen zuen, gutxi gora behera nondik pasako zen azalduz, baina informazio handiegirik ez.

**Informazioa jasotzean, udalaren jarriera aldekoa ere izan zitekeen, ezta?**

Izan zitekeen, baina Deikatzeluko alkatesarekin eta Lurra taldekoekin hitz egiten hasi ginenean, informazioa ematen hasi zitzaizkigun, eta herriarentzat onura baino kalte gehiago ekarriko zuela ikusten hasi ginen. Aurreko legealdian gainera, niri tokatu zitzaidan udaletxean egon eta honenkin batera Nafarroako legebiltzarrean ibiltzea; gaia, beraz, pixka bat ezagutzen nuen. Lehenik Lizarraldean atzera bota zen proiektu bera ote zen ikusi genuen, eta horrela zen, gauza bera egin nahi zuten baina beste leku batetik. Gero, abuztuaren bertan, herri kaltetuen artean bilera egin genuen. Han ere argi ikusi ge-

nuen ez zuela inongo onura sozio-ekonomikorik ekartzen; ingurumen aldetik ere izugarriko kalteak sortzen ditu, eta uhin elektromagnetikoen osasunean ere eragina izan dezakete.

**Proiektuaren aurka egoteko hiru arrazoi, hiru arlo, aipatu dituzu. Teoriatik praktikarako saltoa nolako litzateke arrazoiaren ondorioetan.**

**Adibidez, sozio-ekonomiari dagokionean.**

Teknikoekin hitz egiten egon gara, eta linea hori Leitzatik pasa bakarrik egiten dela ikusi dugu. Argi esanda, Leitzak ez du hortik pasatzen den energia erabiliko: ez industriguneetarako, ezta herriko argiteria publikorako edo etxetarako ere. Ez da hona etortzen eta transformadore baten bidez potentzia txikiago batera pasatzen, gero herrian banatu ahal izateko.

**Ingurumena kontuan hartuta, zer ikusiko lukete gure begiek?**

Atzera bota zen proiektuaren linea bera dela kontuan hartuta, eta informazio hori eskuan dugunez, poste txikiak 46 metroko altuera izango duela esan genezake. Leitza mendiz inguratua dagoela kontuan hartzen badugu, altuagoak ere izan daitezke: 80 metro tara iritsi daitezkeela esan digute. Poste batetik bestera 400-500 metro tataro distantzia egongo litzateke, eta gero dorrearen zapa-ta hartu behar da kontuan. Ho-

nek, ormigoizko 10X10 metroko zabalera izango luke, hau da, 100 metro karratukoa. Gero esaten dutena, zera da: linea doan luzera osoan, gutxi gora behera 100 metroko zabalera, harrapatzen duen guztia bota egin behar dela, zuhaitzak direla edo edozein begetazio dela.

Proiektua bere osotasunean hartzen baldin badugu, linea pasako litzatekeen hemeretzi gunetatik hamazazpi, eremu babes-tuak izango lirateke. Hegaztien migrazioan ere kalte ekarriko luke, eta hori Leitza zer den lehendik ere ongi dakigu. Parke eolikoak migrazio denboran zer nolako eragina duen ikusi dugu, adibidez, lehen hortik pasatzen ziren hegaztiak eta orain pasatzen ez direlako. Pentsa horrelako linea erraldoi baten ondorioak nolakoak izango liratekeen.

**Uhin elektromagnetikoen inguruan hitz egin duzu, osasunaren harira.**

Teknikoen arabera, uhin elektromagnetikoen linearen bi aldeetan eragiten dute: 100 kv linea batek, 100 metro tara eragiten omen du, eta honek 400 kv izango litzatekeenez, 400-500 metro tara eragingo luke. Leitza hainbat baserri, distantzia txikiagora egongo lirateke.

**Legediak zer bait esango du, ezta?**

Lineatik 500 metro tara ezin duela herri gunek egon. Herri gunea esaten dugunean, Leitzako plaza

izango litzateke. Baina legeak baserriak ez ditu kontuan hartzen. Gure kasuan, linea Erasote auzotik pasako litzateke, eta hori daude hainbat baserri distantzia hori baino askoz gutxiagora. Proiektu honek, adibidez, baserriak ez ditu bizi eremu bezala hartzen, herri gunea bakarrik aipatzen baitu.

**Eta orain, zein dira eman beharreko urratsak, udalaren ikuspegitik.**

Orain aurkeztu digutena aurre proiektua da, eta udalak ezezkoa eman dio horri. Orain erantzun digute, edo ez. Udalak informazioa bildu, alegazioa jarri eta linearen aurka moztioa onartu du, Bilduren aldeko botoekin. Orain manifestu bat prestatzen ari dira eta hori sinatuko du, herri kaltetuekin batera. Iruñean prentsaurreko bat egongo da hurrengo astean, eta bertan manifestua herri-tar guztiei zabalduko zaie: kaltetu guztiak aurka gaudela eta ez dugula linea hau behar esanez. Autopista Elektrikori Ez! plataforma ere sortzen ari da, eta hori egongo gara. Behin fase hau bukatuta, herritarren eta eragile sozialen txanda izango da. Hauek ere oposizio sendo bat osatu beharko dute proiektua gelditze, Lizarraldean egin zuten bezala. Udala hori egongo da, eta gure lana herritarrei dugun informazio guztia banatzea izango da; eragile bat gehiago izango da udala.



A. IMAZ

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordeak:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizalde:** 687 410 118. leizalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 2. 112.

### BIHAR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 2. 112.

### ETZI

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 2. 112.

### ETZIDAMU

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Tolosa.** *Olentzero eta Iratxo-en Jauntxoak* filmaren musikala gaur, 17:00etan kultur etxean.
- **Leitza.** Herri Urratseko materiala jarriko dute salgai gaur, plazan, 10:00etatik 13:00etara.
- **Tolosa.** LABek euskal presoena eta iheslariaren etxeratzea eskatzeko elkarretaratzea egingo du astelehenean, 12:00etan, Triangelu plazan.
- **Tolosa.** Larramendiko lurperatzearen inguruko bilera astelehenean 20:30ean, kultur etxeko areto nagusia. Bilera hau bizilagun talde batek deitu du.
- **Tolosa.** Larramendiko lurperatzearen inguruko batzarra asteartean. Udal gobernua urbanizazio alternatiba aurkeztuko du 20:00etan Topic-en.
- **Tolosa.** Samaniego ikasketxearen *Erantzukizuna sustatuz seme-alabengan* pedagogi tailerraren hirugarren hitzaldia izango da astelehenean, hilak 12. Ana Elosegiren saioa 17:30ean hasiko da Haur Hezikuntzako eraikinean.
- **Villabona.** Eguzki Bideoak-ek kaleratutako *In prison my whole life* dokumentala eskainiko

dute gaur Gaztetxekoek, 19:00etan udaletxean. Dokumentalean AEBetako Mumia Abu-Jamal preso politikoak heriotzaren korridorean 30 urte betetzen dituela kontatzen da.

- **Ibarra.** *In prison my whole life* dokumentala, gaur 22:00etan Gaztetxean.
- **Tolosa.** Udalak Gipuzkoatik kanpoko kartzetan dauden presoena familiei bidaia gastuei aurre egiteko diru laguntza eskaerak aurkezteko epea ireki du. Hilaren 30ean bukatuko da eskaerak egiteko epea.
- **Tolosa.** Eskuratu daitezke jada, hilaren 17an Tolosako Orfeoak eskainiko duen Eguberri kontzerturako sarrerak. Kontzertua Leidorren izango da, eta sarrerak 12 euro balio du. Sarre- orkeoizaleen bidez, Leidorreko leihatilan edo Orfeoaren Nafarroa etorbideko egoitza eskuratu daitezke.
- **Tolosa.** Tolosan ordezkari izango duten eta jarduerak Tolosan bertan duten Gobernu Kanpoko Erakundeek diru laguntzak eskatzeko epea. Datorren aste ostegunean, hilak 15, amaituko da epea, 13:00etan.
- **Zizurkil.** Kirol batzordeak an-

tolatuta Zizurkilgo kirolariei omenaldia egingo diete datorren ostiralean, hilak 16. Herritarrek kirolariak proposatzeko aukera dute Kirol batzordearekin harremanetan jarrita.

- **Villabona-Zizurkil.** Katea Etxeak eta Zizurkilgo Gaztezu- lok graffiti ikastaroa antolatu dute hilaren 27rako, Zizurkil. DBH 2, 3 eta 4ko gazteek bi gazteleketan eman dezakete izena.

### ANTZERKIA

- **Tolosa.** Erretiratu eta pentsiodunen Harizpe elkarteak *Beridorm* izena duen antzezlanaren emanaldia antolatu du. Lana astelehenean ikusi ahal izango da kultur etxean 19:00etan. Antzezlanaren Urrietako Denda-Berri kultur elkarteak prestatu dute, eta lana euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dutela esan dute.
- **Aduna.** Asvineneak VI. Poltsiko Antzerki Lehiaketan parte hartzeko izen ematea ireki du. Horretarako deitu 665 73 80 81 telefono zenbakira edo idatzi [poltsiko2012@gmail.com](mailto:poltsiko2012@gmail.com) helbidera.

### MUSIKA

- **Alegia.** Igandean, hilak 11, or-gano kontzetua izango da Loreto Aramendi elizan 12:00etan.

### ZINEMA

- **Villabona.** Gurea zineman bihar *Tintin y el secreto del unicornio* eskainiko dute 18:30ean eta 22:15ean. Igandean 17:00etan eta 19:30ean botako dute, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean.
- **Leitza.** *No habra paz para los malos* filmak gaur 22:30ean, eta igandean, 19:30ean.
- **Tolosa.** Eva eskainiko dute gaur 22:30ean, bihar 19:30ean, eta igandean 22:00etan. Bihar 21:30ean *Criadas y señoras* izango da, eta igandean 17:00etan eta 19:30ean *Tintin y el secreto del unicornio*. Astelehenean *Criadas y señoras* izango da 20:30ean.

### ERAKUSKETAK

- **Alegia.** SOS Razismok *Emakumea, etorkina, bizilaguna* erakusketa jarriko du kultur etxean astelehenean aurrera.

## Agurak



### Zorionak!

**Markel Martinez Sagastibelza (Leitza).** Gaur 3 urte.

Urte askoz eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaiobertzeak...  
jaunartzeak...

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● **agurrak**

Zatoz **hitza**ren egoitzara gure arropa berriak probatzera

**Helduentzako Jertsea: 29,5 €**

**Kolorea:** beltza  
**Gizon eta emakumeen modeloak**  
**Neurriak:**  
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL  
• Emakumeak: S-M-L-XL



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**

Araba Etorbidea, 5 behe (Tolosa) • Tel: 943-65 56 95

**INKERNU jantzigintza**

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behe • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • [elvinkernu@gmail.com](mailto:elvinkernu@gmail.com)